

IKASTETXEA, BAKE-LEKUA

HELBURUAK

- Talde batentzat dibertsitateak duen balioa ulertzea eta baita batasuna eraikitzeko ezaugarri komunak aurkitzeko premia ere.
- Diskriminazioa indarkeria modu bat bezala identifikatzea.
- Enpatia eta bestearen larruan jartzeko gaitasuna sustatzea.

BEHARREZKO MATERIALAK

- Bideoa: *Ikastetxea, bake-lekua*, hemen eskuragarri:
www.unicef.es/eus/educa/liburutegia/bake-ikastetxea-jarduera-lehen-hezkuntza

LAGUNTZA-MATERIALA

- Eskubideetarako eta herritasun globalerako hezkuntzako jardueren eta baliabideen gida edozein indarkeria modutik aske egoteko haurrek duten eskubideari buruz, hemen eskuragarri:
www.unicef.es/eus/educa/liburutegia/eskolan-salbu-ikasturteko-gida
- "Haizea eta Ane", bullyingari buruzko ipuin bat. Eranskinean eskuragarri.
- "Lou", Pixar-en film laburra, YouTube'n eskuragarri.

#EndViolence

Elkartu zaitez UNICEFen munduko kanpainara indarkeriari azkena emateko. Ospatu ezazu Haurren Eguna zure ikastetxean, bakearen eta tratu onaren aldeko txerto batekin. Jakin ezazu nola egin hemen:
www.unicef.es/eus/educa/tratuona

Ikasgelarako hausnarketa bat proposatzen dizugu gure desberdintasunak gainditzeko denok dugun erantzukizunari buruz, eta ikasgela eta ikastetxea indarkeriarik gabeko inguruneak izatea lortzeko.



Jarduera prestatzea

Ikastetxea, bake-lekua bideoa proiektatuko dugu. Bideo honek labur-labur adierazten dizkigu dibertsitatearen eta bizikidetzaren gaitako batzuk, baliagarriak izan daitezkeenak bakeari, indarkeriarik ezari eta tratu onari buruzko elkarriketa bat egiteko. Hona hemen elkarriketa gida dezaketen galderetako batzuk:

1. Zenbat pertsona daude munduan? Nola izango litzateke mundua pertsona guztiok berdina izango bagina eta gauza berak gogoko izango bagenu?
2. Imajinatu denok lanbide berean lan egin nahi genukeela (eta kazetariak edo sukaldariak bakarrik egongo liratekeela) edo guztiok dugula gustuko futbola... Existituko litzateke futbola guztiok talde berekoak izango bagina?
3. Zer irabazten du talde bateko kideek gauza desberdinak egiten dakitenean edo interes desberdinak dituztenean?
4. Bideoan gatazka bat ikusten dugu bi pertsonaiaren artean. Nolakoa da gatazka, baketsua edo indarkeriazkoa?
5. Beste pertsonaietako batek gatazka ikusten du eta zerbait egiten du konpontzeko. Zuzen jokatu du?
6. Nolakoa izan da gatazkaren konponbidea, baketsua edo indarkeriazkoa?
7. Zer egingo zenuke zuk?
8. Beste zer indarkeria modu ezagutzen duzu eskola-ingurunean gertatzen dena? Zer egin dezakezu?

Ikasgelan bullyingari buruz sakondu behar badugu, bi material gehigarri erabil ditzakegu: "Haizea eta Ane" ipuina (eranskinean) eta Pixar-en "Lou" animazioko film laburra, arazoaren alderdi desberdinei heltzen baitiete, tratu onaren eta inplikaturako aldean emozioak ulertzearen ikuspegitik.

Haizea eta Ane

Inork ez zuen Haizea gogoko. Ikasgelako gainerakoak baino zaharragoa zen, eta oso handia. Bere ikaskideei boligrafoak eta beste gauza batzuk kentzen aritzen zen eta jo egingo zituela esanez mehatxatzen zituen irakasleari zerbait esaterakoan. Txikiak bultzaka ibiltzen zen jolastokian eta jo egiten zituen berarekin jolastu nahi ez zutenak; jolasten bazuen, ordea, jolasa hondatu edo tranpak egiten zituen. Inork ez zuen Haizea gogoko, benetan.

Egun batean, neska berri bat iritsi zen ikasgelara. Txiki-txikia zen eta oso azkarra zirudien, beti erantzuten baitzien irakaslearen galderei. Gelako gainerakoek azkar usteko bat zela pentsatzen zuten eta, berria zenez, ez ziren saiatu haren lagunak izaten. Bakarrik esertzen zen jolastorduan ogitartekoa jateko. Hala, egun batean korrika etorri zitzaion Haizea, eta hari ogitartekoa indarrez kendu eta bota egin zion erdia lurrera. Denak geratu ziren begira negarrez hasiko ote zen ikusteko, baina ez, horren ordez, Haizeari jarraitu eta esan zion:

– Gosez bazaude, zergatik ez zenidan pixka bat eskatu? Zerbait eman izango nizuke. Orain, lurrera eroritakoa ezin dugu jan, ez nik ezta zuk ere.

Haizeak tinko begiratu zion, hozkada batez irentsi zuen ogitarteko erdia, barrez hasi eta esan zuen:

– Ogitartekoa kendu dizut handiagoa naizelako eta hori egin dezakedalako. Ez naiz hain gose, janaria eskatzen aritu behar izateko.

– Egia da, bai, ni baino handiagoa zara –erantzun zuen neska berriak– baina horrek ez du esan nahi nahi duzuna egin dezakezunik. Egin duzuna gaizki dago eta berdin dio zein handia zaren. Gainera, ez duzu ezer irabazten horrela jokatu.

Haizea harrituta geratu zen, inork ez baitzion horrela inoiz hitz egin, eta bultzatu egin zuen neska lurrera eror zedin. Berriz ere, guztiak pilatu ziren negarrez ari ote zen ikusteko, baina ez zuen horrelakorik egin. Zutik jarri zen, arropa astindu zuen eta urrundu egin zen.

Beste haurrak isilik geratu ziren, baina haietako asko lotsatuta zeuden, lagundu ez ziotelako eta, are gehiago, Haizeari horrela inoiz hitz egin ez ziotelako beste haur batzuei gehiegikeriak egiten zizkienean. Haur batzuk neska berriarengana hurbildu ziren:

– Nola duzu izena? – galdetu zuten.

– Ane izena dut –esan zuen irribarrez–. Eta nola duzu zuk izena?

Laster egin ziren haren lagunak eta hasi ziren hizketan eta barrez. Tarte batean, Anek galdetu zien:

– Zergatik ez duzue ezer egiten Haizeak beste haur batzuk gaizki tratatzen dituenean?

– Ez duzu ikusi zein handia den? –erantzun zuten beste alde batera begira–. Gainera, gu baino zaharragoa da. Nahi duena egingo du eta ezin dugu geldiarazi.

Esan ziotenaz pentsatzen jardun zuen Anek. Berak bazekien zer sentitzen den gainerakoen begiko ez zarenean, berria izateagatik ikasgela horretan bertan gertatu zitzaiolako hori. Gaizki sentiarazten zintuen zerbait zen, amorrarazten zintuena eta ezatsegina izateko gogoa ematen zizuna haiek zigortzeko. Haizeak ere gaizki sentitu behar zuela pentsatu zuen, handiagoa izateagatik eta txikien gela batean egoteagatik, eta beharbada horregatik zegoen haserre denbora guztian. Beti haserre egoteak izugarria izan behar zuela konturatu zen Ane.

Hurrengo egunean, Haizearen ondoan eseri zen Ane, eta boligrafo bat eskaini zion.

–Behar baduzu –esan zuen–. Aizu, badakizu nire beste eskolan lan hau bera egin genuela? Laguntzea nahi duzu? Haizea aurreko egunean baino harrituta zegoen: inork ere ez zion lehen laguntzarik eskaini.

–Zergatik nahi zenidake lagundu? –esan zuen fidagaitz–. Zergatik uste duzu zure laguntza behar dudala?

–Ba, gai honekin orain hasi zaretela ikusi dudalako, besterik gabe, eta hona etorri aurretik ikasi nuelako nire beste eskolan. Geroago egongo dira ez dakizkidan gauzak eta orduan lagundu ahal izango didazu zuk.

Aneri begiratu zion Haizeak, beregana hurbildu zen eta ordurako egina zuen lana erakutsi zion isilka esanez:

–Ez dut ulertzen, ez dakit nola jarraitu.

Anek ahopeka eta marrazki batzuekin azaldu zion lana nola egin, Haizeak ebatzi ahal izan zezan.

ERANSKINA: Bullyingari buruzko ipuinak

Irakasleak galdera bat egin zuenean, eskua altxatu zuen Haizeak. Denak geratu ziren oso harrituta, baita irakaslea ere, lehendik inoiz ez baitzuten ikusi Haizea eskua altxatzen. Eta are gehiago harritu ziren Haizeak zuzen erantzun zuenean. Klasean zehar, hariari jarraitu ahal izan zion Haizeak eta beste galdera batzuei ere erantzun zien hark.

Hurrengo asteetan, Haizea eta Ane elkarrekin batera aritu ziren lanean eta, gutxika, Haizeak gero eta gehiago ulertzen zuela ematen zuen. Jolastorduan, Haizeak gainerako guztiekin jolastea nahi zuen Anek, baina lehenago gauza bat esan zion belarrira:

–Elkarrekin jolasteak esan nahi du guztiok jolastu eta dibertitzen garela; parte hartzera gonbidatzen bazaitugu ezin diguzu jolasa hondatu.

Haizea oso ona ez zenez jolas bakar batean ere, Anek beste haur batzuei eskatu zien laguntza hark ikasi eta praktikatu zezan. Denborarekin konturatu ziren ikasgelan Haizea ez zela jadanik hain zapaltzailea.

Aneri galdetu ziotenean nolatan utzi zion Haizeak bully bat izateari, Anek galdera bat egin zien:

– Nola sentituko zinateke zu talde batetik baztertuko bazintuzte desberdina izateagatik?

–Bueno, pentsatzen dut nire burua defendatzen saiatuko nintzatekeela.

–Ba horixe egiten zuen Haizeak: deseroso sentitzen zen eta gu beldurraziz defendatzen zuen bere burua. Orain, ordea, taldekoa da eta ez du gehiago horrelakorik egin beharrik.

Gainerakoak pentsakor geratu ziren baina ondo ulertu zuten Anek esandakoa bazuela zentzua.

–Erasotzaileak pertsona bakartiak, tristeak eta haserreak izan ohi dira –jarraitu zuen Anek–. Zuek ere egongo zinateke triste eta haserre mundu guztiak egingo balizue ezikusia, eta zuen lepotik barre egingo balute ikasgelan gauzak ez dakizkizuenean.

Batzuek beste alde batera begiratu zuten, pixka bat lotsatuta. Gutxika hasi ziren ulertzen horrelaxe hasten direla borroka asko: jendea baztertzear eta haiei barre egitean moldatzen ez direlako. Ez zen Haizearen errua nota txarrak ateratzea: denborarekin, lagun berriei esan zien berak eta bere familiak arazo ugari izan zituztela eta horregatik kostatzen zitzaiola hainbeste erritmoari jarraitzea. Lagun bat bakarrik behar zuen, entzun eta lagunduko zion norbait. Orain taldean beste bat gehiago zenez, ez zuen inoiz gehiago beste inor eraso nahi izango.

Ane nexka txiki-txiki bat zen, baina oso azkarra, eta orain ikasgelako neskarik altuena zuen laguntzat.

AMAIERA

"The class bully" ipuina, Sara's Choice – A Collection of Stories and Poetry, Inter-Agency Peace Education Programme Skills for Constructive Living bildumakoa, UNESCOk eta INEEk argitaratua (Paris, 2005).

"HAIZEA ETA ANE" IPUINARI BURUZKO GALDERAK

1. Zer egiten aritzen zen Haizea ipuinaren hasieran?
2. Zergatik ulertzen zuen Anek nola sentitzen zen Haizea?
3. Nola egin zen Ane Haizearen lagun?
4. Zergatik portatzen zen Haizea bully bat bezala?
5. Noizbait sentitu duzu besteen begiko ez zarela?
6. Nola sentitzen zara eta zer egiten duzu hori gertatzen denean?
7. Uste duzu bullying egiten duten hurrek arazoak dituztela?
8. Zer konponbide bururatzen zaizu? Zer egingo duzu zuk?

Lou

"LOU" FILM LABURRARI BURUZKO GALDERAK

1. Zer istorio kontatzen digu film labur honek?
2. Nor da J.J.? Nor da Lou?
3. Zergatik iruditzen zaizu jokatzeko duela horrela J.J.k? Uste duzu benetan nahi dituela besteei kentzen dizkien gauzak? Zure ustez besteen arreta lortu edo lagunak egin nahi ditu?
4. Zer daki Louk J.J.ri buruz?
5. Louk zergatik behartzen du J.J. jostailuak zuzenean itzultzera? Zer espero du gertatzea Louk?
6. Noiz hasten da aldatzen J.J.?
7. Zer ikasten du Louri esker J.J.k?

